

ERLEAK

Erleen familiak:

Erleak erlauntz izeneko kolonietan bizi dira. Erlauntz bakoitzeko bizilagunek talde edo familia handi bat osatzen dute. Hauek dira familiako kide nagusiak:

- 1) **ERREGINA**, gainerako guztien ama dena. Bera da erlauntzeko eme emankor bakarra, hau da kumeak izan ditzakeen bakarra. Udaberrian eta udan 2000 arrautza jartzen ditu eguneko.
- 2) **ERLAMANDOAK**: erle arrak dira. Oso alperrak dira eta euren egiteko bakarra erregina ernaltzea da.
- 3) **LANGILEAK**: talde handiena da eta erlauntzeko lan guztiaz arduratzen dira: argizaria egin, polena bildu, eztia egin, larbak zaindu, erlauntza garbitu...

Erleak urtean zehar:

Neguan erleak jan eta lo egoten dira. Hotzarengatik erle asko hil egiten dira.

Udaberrian Erreginak arrautzak jartzen ditu. Erle langileak berriz lanean hasten dira.

Udaberri eta **udan** erlekumeak jaiotzen dira.

Udazkenean erleek geroz eta lan gutxiago egiten dute. Egunak mozten doazen einen beranduago hasten dira lanean eta goizago bukatzen dute.

ARIKETAK:

1) LOTU DEFINIZIO EGOKIAREKIN:

1) Erlauntzeko lan guztiak egiten dituzte.

☐ ERREGINA

2) Alfer hutsak dira. Erregina ernalduta, besterik ez dute egiten.

☐ LANGILEAK

3) Gainerako guztien ama da eta berak izaten ditu kumeak.

ERLAMANDOAK

☐

2) LOTU URTARO EGOKIAREKIN:

1) Erlekumeak jaiotzen dira

☐ NEGUA

2) Erleek geroz eta lan gutxiago egiten dute

☐ UDABERRIA

3) Erleak jan eta lo egoten dira

☐ UDA

4) Erle langileak lanean hasten dira

☐ UDAZKENA